

**FUNTZIONAMENDU ARAUAK**  
**Ospitalizazioko Unitatea – NEUROKIRURGIA****Dei egin behar baduzu, ERABILI GELAKO TXIRRINA****MEDIKUAREN BISITA / SENITARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA**

- Ospitaleratutako pazienteak zaren, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta era berean, **osasun-sistemak eskaintzen dituen** zerbitzuak egoki erabiltzeaz arduratu. Ospitalizazio-unitateetik borondatez irteketan, eskatzen dizugu **osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea**, laguntza-asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaletik ez ateratzeko eskatzen dizugu**.
- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurrunak edo lur gabeak.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ospitaleraturik dagoen inori buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalen inguruko ardurarik.

**INTERBENTZIOA BEHAR IZANEZ GERO, JAKIN BEHARREKOA**

- Interbentzioaren osteko informazioa bai telefonoz, bai ABUko/ZIUko itxarongelan emango dizute.
- Anestesia ondorengo sendatzea ABUan/ZIUan egiten da. ZIUan sartu behar izanez gero, zure ondasun guztiak jaso beharko dituzu.

**MEDIKUAREN BISITA ETA SENITARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA**

- **Egunero 10:00etatik 13:00etara**, gutxi gorabehera.
- Pazientearen eboluzioari buruzko informazioa bisita egin bezain laster ematen da.

**OTORDUAK**

- 09:15ean Gosaria
- 13:15ean Bazkaria
- 17:15ean Askaria
- 20:15ean Afaria

**BISITAK**

- 08:00etatik 22:00etara egunero.
- **Gehienez PERTSONA 1 paziente bakoitzeko.** Nahi izanez gero, senitarteko bat zurekin 24 orduz egon daiteke.

**BESTE JAKIN BEHARREKO BATZUK**

**Kerik gabeko** erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).

**LAGUNTZA ETA HEZKUNTZA SANITARIOA**

Une jakin batean, senitartekoak eta/edo hurbilekoak egotea eska dezakegu, ospitaleratze-prozesuan zainketak nola egin ikasteko neurri gisa. Batzuetan senitarteko baten laguntza behar izaten da pazienteak altxatu/oherratu ahal izateko.

Altxatzeko ordutegia: goizean: 12:00etan Arratsaldean: 18:00etan gutxi gorabehera.

Oheratzeko ordutegia: goizean: 14:00etan Arratsaldean: 21:00etan gutxi gorabehera



**Ospitaleratzearen egiaztagiria** (enpresarako, oheburuko medikuarentzat edo senitartekoentzat), Harrerako Unitatean jasotzen da, beheko solairuan, sarreran.

**TXAGORRITXUKO OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000**

08:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituta: 945000882.

**Kanpora deitzeko**, [logelatik](#), telebistako txartelaren bidez ere dei dezakezu.



**Telebista-zerbitzua** ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungitze-datarik; hortaz, berriro erabil dezakezu. Matxuraren bat gertatu edo zerbait behar izanez gero, deitu 1422 luzapenera edo 636 46 59 37 telefono-zenbakira. Telebista- eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke eta.

**KAFETEGIA:** Ordutegia: 07:30etik 22:00etara. KAFETEGIA ERDISOTOAN DAGO.

Solairu batzuetan kafe-eta freskagarri-makinak daude, hain zuzen ere, igogailuak dauden hall-ean.



**OSPITALEKO ALTA:** Ahal dela, bezperan emango dizute horren berri. Komenigarria da alta egunean senideren batekin izatea.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.

**ERLIJIO ZERBITZU KATOLIKOA:**

Harremanetarako telefono-zenbakia: **618 75 14 15**.